



EUGENI SUKIA GARMENDIA DONOSTIAKO ERREKADISTIA



Oñatiar askok Txarriduneko Eugeni moduan ezagutuko dozue emakume hau, izan be, hango alabia da eta. Gerria etorri zanian, bere gizonarekin batera Batzoki-ko arduraduna zan eta gizonak ihes egin behar izan eben; orduantxe hasi zan errekadista lanetan eta harrezkero makinatxo bat enkargu egin dittu.

- Noiz hasi zihan errekadista lanetan?

Gerra denporan, biharrak eragindda. Ordura arte Batzokixaren kargua geukan, baiña nazionalak setienbrian Oñatira sartu ziranian, nere gizonak Frantziara alde egin bihar izan

eben, etxian egozen diru apurrak eruanda, eta ni, hirugarren umia jaixoteko, goixan zerua eta behian lurra geratu nintzan. Orduan ekin notzan Donostiara bildotsak eruatiari.

- Zer dala eta bildotsak?

Begira, *Txarridunian* beti egon zan kamazerixia eta bildots denporan Bilbora asko bialketan zittuain; baiña gerria zala eta, bialdu ezindda geratu ziran eta Oñatin ezeguen nun saldurik. Donostian, berriz, baeguen saltzeko bidia; guk familixia geukan han restaurantiarekin, *Dana Onakuak*, eta hareik eskatuta hasi nintzan ni bildotsak eruaten.

- Eta, zela eruaten zittuan bildotsok?

Otzara haundi batian hamabi edo kabitten ziran eta astian pare bat aldiz faten nintzan trena hartuta. Baiña laister hasi nintzan egunero faten. Donostian preso egozenen familixiak hasi ziran *kartzelatik ekarriko dostazu gizonaren erroia* eta bialdu be egitten ostean erroia garbixa eta jateko gauzia be bai. Eta han faten nintzan ni kartzelaraiño, aurreko amantalarekin sorkixa egindda, otzaria buru gaiñan.

- Bide luzia egitten zebeñ oiñez?

Bai, Ondarretako kartzelaraiño, otzara haundixan paketiak hartuta, hogeit preso baegozen, ba hogeit poltsa buru gaiñan, eskuak ixa aillegaitten etxatela batetik bestera.

- Eta Oñatitik Donostiara Brinkolatik...

Ez, artian ezeguen Brinkola-

rako autobusik eta kostatik egitten neben fan-etorrixa: San Prontzion eta Maltzagan kanbixuak egin eta Donostiaraiño. Handik berihala, bi urtera edo, jarri ebein *Oñatiarrenak* autobusa Brinkolara eta harrezkero handik faten nintzan, goizeko zortziretan *Bujero* ondotik urtenda. Han, txoferrak, Hipolito difuntuak, lagunketan nontan kargiarekin.

Donostian be, azken aldirako bi mutillek lagunketan nontan paketerik astunenak banaketan, eta nik goiz osua emuten neben enkarguak denarik denda egitten eta sobriak partituen.


"Donostia dana korriten neben oiñez, taxisa edo tranbia hartzeko beste eneben irabazten eta"

- Ze eratako enkarguak eukitten zittuan?

Fijo xamar, bankutako korrespondentzia, eta ez bakarrik Oñatikua; Legazpi, Zumarraga, Ormaiztegi, Beasain eta Billafrankakuak be emuten nontan eruateko, bankuko enpliauak estaziñora urtenda. Baiña enkargauta, zer eneben ekarten nik? Zapatak, bodetarako poltsuak eta alkilautako sonbreruak, nobixa-erramuak be bai, tinttorixarako erropak, telak...

- Baiña, zeuk apartautakuak?

Hasieran halako eta halako eskaparatian ikusittako zapatak eskaketan nontan, eta nik gutxi gora behe-ra asmau zeintzuk ziran, pagau eta ekarri; ze lehenengotan ez nindduain



PEUGEOT-TALBOT AGENTEA

OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar Auzoa, z/g. Tfnoa. 78 13 50 OÑATI

**URZELAI
DENDA**

KALEBARRIA, 26
20560 OÑATI



ezaguketan eta pagau egin behar izaten nebein, baiña gero, konfiantzia hartu ebeinian, 20 pare be emuten nostain ikusteko, *Muro, Ayestaran* eta halakuetan. Oso ondo portau zan nerekin Donostiako komertziua; oraindiok be, alabia zenbait lekutara doianian neregatig preguntaitten xaue.

- Noiz arte izan zara errekadistia?

65an itxi notzan, 55 urte nittuala. Hogetazortzi urtian egunero egunero fan nintzan Donostiara eta azkenerako oso ondo organizauta neguen. Hemen, etxeuak lagunketan nostain paketiak eta sobriak partitten eta enkarguak hartzen. Etxian, kaleko ate onduan, paketiendako kuarto bat geukan eta dana han eukitten geben ondo ordenauta eta apuntauta. Donostian, *Dana Onan* eukitten nittuan paketiak.



“Hasieran, bankutako sobre bakoitzagatik 2 errial kobraitzen nittuan eta itxi notzanean 5 pezeta”

- Emakume errekadista bakarra zifan?

Oñatin bai; orduan beste errekadista bat bakarrik eguen: Atxa, Bilbora faten zana. Baiña Azpeitti, Motriko, Eibar, Elgoibarretik zixoiazeiñak emakumiak ziran; gehixenak nere antzera, gerra denporan derrigorrez hasittakuak. Nere gizonari kartaz abi-

xau notzanean errekadista nenbillela, pentsau ei eben *zela arreglaitzen ete da? etxetik urten eta, automobillian igo bihar dauela jakin orduko, mariauegiten da eta*. Dana dala, 41ian bera bueltau zanian, nik jarraitu egin nebein, ordurako martxia hartuta neukan eta.

- Hainbeste urtian hara eta hona, edukiko dozu pasadizoren bat...

Bai, kontauko dotzuet bat edo beste. Azkenengo urtetan, han lagunketan nostain mutillak paketerixia dana pixau eta trenian sartzen ebein ni fan orduko; oso ezaguna nintzan RENFEkuen artian eta trenak apurtxo bat itxoin be egin izan nostan. Baiña behin, eztakitt zergatik, berandutxuan nebillen eta, itxuria danez, bastante

itxoin nostain, eta ni estaziñoko atian sartu orduko, trena martxan eguen; baiña interbentoriak, Billarreal izeneko oso gizon majuak, trena geratu eragin eben eta jende dana preguntian hasi zan ze pasaitten zan eta ni itto biharran trenbidian. Enintzan behinguan aillegau! Ha zan larrixa! Danak Oñatiko errekadistiari begira!

Beste anekdota bat be badaukot: etxian bageukan txakur eder, haundi bat, nere gizonak Hernanin eukan obra bat zainketako eruan ebena eta, han egon zan denporan, goiz eta arratsalde estaziñora etorten xaten, usaiñagatik edo, antz emunda. Hernaniko jentia, txakurra pasaitten ikusten ebenian, esaten ei eben: *Han, badator trena!*

TALLERES OLA

BERGARA
Tfnoa: 943- 76 33 44 - 46

ARRASATE
Tfnoa: 943 - 79 05 86

CONCESIONARIO OFICIAL

ELEKTRIZITATEA
Jose M^a Egaña

- Elektra-instalazioak
- Industri-mantenimendua
- Motor-birbobinaketa
- Automatismoak
- Elektragailuen konpoketa
- Registro zenbakia SS-949

OLAKUA, 13 B
TFNOA. 78 04 42 - OÑATI